


# ABDOULAYE GUEYE

## "Batzuk zalantzazko biharraren beldur dira"

*Abdoulaye Gueye (Senegal, 1968) CARITAS GIPUZKOAREN aholkulari juridikoa da 2002 urteaz geroztik. Astero, atzeritartasun gaietan aditua, izapideei etab. rri buruzko informazioa bila dabilen pertsoneri laguntzen die. Bere bulegoko atea beti dago zabalik. Baina oraingoan telefonoz hitz egin dugu. Jasotzen dituen eskaerei ere, era berean erantzuten ari da.*



*Covi-19aren aurretik, zure CARITAS GIPUZKOAREN aholkulari juridiko lana oso presentziala zen. Elkarrizketak aurrez aurre egiten zenituen. Hurbiltasun handia zegoen. Hori aldatu egin da; orain telefonoz egiten dituzu. Nola daramazu?*

Bulegoaren intimitateak entzutea, hurbiltasuna erakustea eta galderak egitea errazten du. Jendeari konfiantza ematen dio zu ikusteak, identifikatzeak... Telefono bidezko elkarrizketa hotzagoa da.

Baina berrasmatu egin behar dugu, egoeretara egokitu, eta pandemiak hordagoa bota digu. Denborak aurrera egin ahala, beste bide batzuetatik egoerei aurre egiteko menderatzen joango garen aukerak eskaintzen ditu teknologiak. Nolabait, harremana berriro martxan jartzea da.

*Eraginkortasuna ez da aldatu.*

Baina arazok aurrera jarraitzen dute. Egoera hobetu arte itxarongo bagenu, ziurgabetasuna sortuko litzateke, zenbait jenderi, adibidez, baimena iraungiko baitzaio. Eskatu duten beste batzuk berritzea nahi dute, baina egungo egoera dela eta, ez dakite zer egin. Lan bila zebiltzan pertsona batzuk, eta beste batzuk, aldiz, galdu egin dute. Ziurgabetasun-egoera berri bat sortu da mundu guztiarentzat; baina atzeritarrarentzat, are gogorragoa da.

*Ez dituzte une samurrak bizi.*

Jatorrizko herrialdera bidaiatu eta baimena berritzeko itzuli behar zuten atzeritarren kasuak ditut, baina egoerak han harrapatu ditu. Orain, mugak itxita daude ez dakigu noiz arte.

Egoera arrunt berri baten aurrean gaude. Orain arte ez zen horrelakorik gertatu. Hilabete eta erdian ekoizpen juridikoa izugarria izan da: dekretuak, etab. A, eta lege asko aldatu egin dira.



### **Atzerritarraren zaurgarritasuna, zer aurpegi du koronabirusaren atzean?**

Covid-19k okertu egin du. Paperik gabe, lanik gabe... zegoen jendeak, berdin-berdin jarraitzen du. Ezkutuko ekonomian lan egiten zutenak -top manta, kaleko salmenta...- ezin dira lan horretan aritu. Etxeko zerbitzuan lan egiten zuten emakume atzerritarrek lana galdu dute, edo arrisku egoeran lan egiten ari dira. Langile 'ez nahitaezko' gehienak atzerritarrak dira: kualifikaziorik gabeko lanpostuak, ostalaritza, etxeko zerbitzua...

### **Atzerriko familien etxeko errealitatea beste kontu bat da.**

Bai. Haur batek, etxeko lanak -halakorik balu-, etxeko lanak internet bidez jaso ondoren, ez du inor alboan lan horiek egiten laguntzeko, gurasoek ez baitute euskaraz hitz egiten. Tarte teknologikoa baino askoz gehiago da. Sistemak ahazten dituen dinamikak dira; ez dio kasurik egiten eguneroko egoeratik kanpo dagoen gutxiengo txiki horri.

### **Era guztietako galderak egin dizkizute.**

Bai. Askok. Langabezi-prestazioa noiz iritsiko zaien ez dakitelako kezkatuta dauden pertsona asko. Egoera zaila da guztiontzat.

### **Zein da galderak egiten dizkizuten pertsonen profila?**

Ez da aldatu ez profila, ez eta aholkularitza-eskaeren kopurua ere, koronabirusaren aurreko eskakizunekiko. Kontsultak era guztietakoak dira. Atzerritartasunean izapide bat hasi zuenarena...

Uneko kasuistika logikoari, betiko arazoak erantsi behar zaizkio. Bizitza ez da gelditzen. Berriz ere berrasmatu behar izan dugu. Jendeak errealitate berrira egokitu behar izan du, baina batzuk zalantzazko biharraren beldur dira.

### **Nabaritzen al duzu kezka, telefonoaz hitz egiten duen pertsonarengan?**

Jendea izututa dago bizitzea tokatu zaion egoerarengatik. Larritasuna helarazten didate bizitza egun batetik bestera aldatu baitzaie. Ez daki zer gertatuko zaion. Gainera, izapideak impase-egoeran daude. Jendea ohi baino urduriago dago, eta gehiago kostatzen da konfiantza transmititzea.

### **Kontsultetan, zein dira gehien errepikatzen diren galderak?**

Oraintxe bertan, gobernuan argitaratzen ari dena jarraitu eta irakurtzea da nire denbora gehien hartzen duena: arauak, aldaketak... Jendeari etxebizitzaren, lanaren, ABEEEn (Aldi-baterako Enplegu Erregulazio Espedienteak) eta abarren arloan laguntzeko gizarte-gaien multzo osoa.

Alegia, egiten dizkidaten eskaerei erantzuteko tresna guztiak aztertu eta prestatzea. Esate baterako, etxeko langile enplegatzaileen kontsultak, izapide administratiboak non eta nola egin behar dituzten. Zalantza asko dituzte. Jakin nahi dute zer urrats eman behar dituzten, izan ere, Gizarte Segurantzari deitzen egon daitezke, eta dei kopuru handia dela, ez die inork erantzuten.

### ***Etxebizitza, beste kezka handia.***

Galdera asko izan ditut Babes Ofizialeko Etxebizitzetan bizi diren pertsonenak; baldintza batzuk betez gero, Eusko Jaurlaritzak ordainketa bertan behera utzi du, eta jendeak galdetzen du ea zer izapide eskatu behar dituen. Kaltetuak atoian daude. Kotsulta asko egin dira, gobernuak atzerritarrak, 'paperik gabeak', erregularizatuko zituen zurrumurrua ere zabaldu baitzen. Hilabete batean gauza asko gertatu dira, eta bihar, berriz, ez dakigu zer gertatuko den. Ziur gaude da, prest gaudela.

### ***Seme-alabak berriz bildu, hipotekak luzatzea, alokairu-ordainketak atzeratzea...***

Gai horiei erantzuten ari naiz. Horiei guztiei, langabezia edo ABEEak gehitu behar zaizkie. Edo kontratua amaitzen ari ziren pertsonak, eta luzapen automatikoa zutenak...

Zorionez, nahiko tresna interesgarriak ditugu. Espainiako Caritas Konfederaziotik irtenbideak kudeatzeko tresnak partekatzen ditugu. Informazio-fluxu handia dago guztion onurarako.

### ***Autonomoak ere guztion ahotan daude.***

Beste arazo handi bat. Jarduera bertan behera utzi, ordainketak atzeratu eta abar egin dezakete. Krisi honetan sektorerik kolpatuena izango da. Merkatu txikietan lan egiten duten pertsonak, etab. koltxoirik ez badute... Gobernuak orain arte ez du horiek sustatzeko modu eraginkorrik aurkitu.

Espainiako Caritasek **sei neurri** aurkeztu ditu krisiak pertsona migratzaile eta errefuxiatuengan duen eragina saihesteko.

Gutziz beharrezkoak diren neurriak dituen plana da, eta gobernuak kontuan hartu beharko lituzke. Baina lehenbiziko neurriak erregularizazioa izan beharko luke. Hau da, penintsulan dauden, eta ez dituzten pertsonen, paperak ematea. Gogora dezagun pertsona horiek ez dutela ezertarako aukerarik.



### **Administrazioak dozena-erdi neurriak aintzat hartuko al ditu?**

Inoiz ez da gobernu bat izan pertsona ahulenen egoerarekiko hain sentikorra. Aurreko krisia eta oraingoa alderatuz gero, alde handia dago. Baina sentsibiltatea ez da nahikoa! Gobernu honi etsenpluaren bidez predikatzea eskatu behar zaio. Orain da frogatzeko garaia. Ez dakigu zer egingo duen, zenbait eragile politiko, ekonomiko... kontrolatzen ez ditugunak ere hor baitaude, eta lasta lanak egin ditzakete erabakiak hartzeko orduan.

### **Zer argi mota ikusten duzu tunelaren amaieran?**

Giza gizarteak, egoera guztietara egokitzen gara. Pasako da, gure ohiko bizitzara itzuliko gara, eta espero dut ikasitako eta nork bere egindako ikasgaiarekin gainera. Sufrimendu handiz aterako gara. Espero dut denborak aukera emango digula berdintasunezkoagoa den beste mundu bat eraikitzeko, interes orokorraren garrantziaren jakitun; zerbitzu publikoak guztion ongiaren berme gisa. Ikasgai honetatik ezer ikasten ez badugu, beste belarrondoko bat emango digun fenomeno bat iritsiko da bihar. Gizarteak egoera zail hau gainditzeko gaitasuna eta sinergiak ditu.

